

WWW.HITZA.EUS

BARIKUA, 2020KO AZAROAREN 13A XI. URTEA. 1.758. ZENBAKIA

TESTUAK: AINTZINA MONASTERIO MAGUREGI, ANE MARURI ARANSOLO, ASIER ALKORTA, EIDER MUGARTEGI, NEREA BEDIAUNETA ALKORTA, OIHANA CABELLO ELORRIAGA, OLAIA ZABALONDO



Zozketak · Saridunak		HITZAkide TXOKOA
BENIAMIN BADIOLA LASARTE [Ondarroa] Hitza jerriko cia zurekin herrenmanerari. 75 ERRIGORAKO OTZARA BERDEA Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzzlea errigora.eus ERRIGORA	JESUS MARI ETXEBARRIETA SUAREZ [Gautegiz Arteaga] Hitza jerriko cia zurekin herrenmanerari. 76 LERTXUNDI LIBURUA Mikel Lertxundi Maribel Alerza <i>harpidedun izateak badu saria!</i>	



Oihana Cabello Elorriaga

BUSTURIALDEKO HITZAko zuzendaria

Kutsatu gaitezen

Beldur naiz. Pandemia egoera honetan beldur naiz. Mikrobirus batek hankaz gora ipini du gizartea, hankaz gora mundua... Bai mundu zabala, eta baita norberaren eguneroko mundu txikia ere. Eta bai, beldur naiz.

Beldur gara. Osasuna arriskuan ikusten dugun honetan beldur gara, eta ez da gutxiagorako ere. Beldur izateko moduko egoera bizi dugulako.

Eta kutsatzeari beldurra sartu diguten honetan, ni ere beldur naiz. Baina ez kutsatzeko beldur naiz. SARS-COV-2 birusak paretik kendu digun bizimodu ereduarekin berriro ez kutsatzearen beldur naz.

Hamabost urte beteko ditu BUSTURIALDEKO HITZAK abenduaren 15ean. Nerabezarora heldu da. Eta Busturialdeko beste hainbat nerabek legez, ez du imajinatutako moduko ospakizun jendetsurik izango, ez ditu ondoan edukiko ondoan nahiko lituzkeen horiek guztiak (ez fisikoki, behintzat). Zoriontzeko ematen diren bi muxuak, besarkadak... zorion eta maitasun adierazpenak 'debekatuta' ditugulako, horiek inoiz berriro ez berreskuratzearen beldur naiz.

Maitasun adierazpenak galtzearen beldur, *Maita dezagun ondo* kanpaina bultzatu zuten Hitzek 2019an. Gurea dena, tokikoa dena, gure nortasuna, gure kultu-

ra, gure ekonomia, gure hizkuntza... Gurea maitatzearen aldeko kanpaina izan zen hura. Eta aurrerantzean ere ondo maitatzen jarraitzeko apustua egin dugu BUSTURIALDEKO HITZAKO lantaldekook. Zailtasunak zailtasun, egoera bata edo bestea dela, zuen berri ematen, zuen informaziorako eskubidea bermatzen, Busturialdeko albisteak euskara hutsean ematen jarraitu dugu, egunerokotasunean ondoan jarraituz.

Hamabost urtetan bizitako gorabehera ekonomikoak eta zailtasun linguistikoak ez dira gutxi izan. Baina egin dugu. 20 herrietako eragile, talde, harpidedun, iragarle eta babesleen aupada izan dugulako egin dugu aurrera. Gogoan ditut zuen laguntasun eta berotasun adierazpenak: BUSTURIALDEKO HITZAREN aldeko manifestazio jendetsua, BUSTURIALDEKO HITZAREN aldeko kontzertuak Astran eta hogei urtetan Gernikari hainbeste eman dion Trinkete Antitxokoan; Gernika-Lumoko jai Alai frontoian bi urtez jarraian egin ziren HITZAREN aldeko bertso saioak, *Nik maite dut Hitza* kanpaina bultzatzeko ondoan izan genituen herritarren borondate ona eta berotasuna, urte hauetan bultzatu ditugun harpidetza kanpainein bat egin duten kirolari, norbanako, talde eta eragileen ekarpena, HITZA eguna...

Horiek guztiak, eta azken batean zuek, izan zarete BUSTURIALDEKO HITZA, euskara, eta tokiko komunikazioa kutsatu duten birusa. Babes, elkarlan, bultzada eta maitasun hori da gure barruetaraino heldu eta egoera latz denetan indarberrituta ateratzea posible egin dutena. Eta urteurren honetan ere, hori da sentitu gura duguna, hori da eskertu gura duguna...

Horrekin guztiarekin kutsatu gaitezen! Zorionak Busturialdea!

Hamabost urtetan bizitako gorabehera ekonomikoak eta zailtasun linguistikoak ez dira gutxi izan. Baina egin dugu. 20 herrietako eragile, talde, harpidedun, iragarle eta babesleen aupadagaz egin dugu aurrera



BUSTURIALDEKO HITZAREN gaur egungo lantaldea. HITZA

-17.168

EUROKOA DA 2006KO ETA 2020KO DIRU LAGUNTZEN ALDEA.

BUSTURIALDEKO HITZA proiektua eskualdeko bi udalen diru laguntzarekin hasi zen: Bermeo eta Murueta. 2006. urtean 60.000 euro eman zituen Bermeok, eta 900 Muruetak. Proiektuarekiko sostengu ekonomiko publikoa, baina, askoz urriagoa da gaur egun. Zazpi udalek laguntzen dute, eta 2020. urtean, guztira, 43.732 euro hartuko ditu. 17.000 eurora arte murriztu du Bermeok diru laguntza, eta 19.500 eurora arte Gernika-Lumok.

98.875

EURO, UDALEN LAGUNTZETATIK BUSTURIALDEKO HITZAK JASO DUEN KOPURURIK HANDIENA

2009. urtean jaso zituen diru laguntza handienak. Bermeok laguntza 40.000 eurora murriztu zuen, baina zazpi izan ziren urte hartan euskarazko egunkariaren aldeko apustua egin zuten udalek. Gerora, laguntza publikoak murriztuz joan dira, eta 2009an jasotakoaren erdia baino gutxiago hartu du 2020an.

3

EURO BIZTANLEKO, URTEAN. Euskara hutsezko komunikabidea, tokikoa, independentea, herritarra eta plurala babesteko HITZA proiektuak udalei proposatzen dien ekarpen ekonomikoa da 3 eurokoa, biztanleko, eta urtean.

26.000

IRAKURLE HILEAN. 2019ko CIES datuen arabera, hori da HITZAK duen irakurle kopurua. Jende guzti horrengana heltzen da hilabetero.

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA, ESNE GORDINA + ESNEKIAK

Lurraren eta abereen arteko oreka zainduz, lurra eta abereak pozolitu gabe ekoliztatuko esne ekologikoa. Lurraren eta abereen osasuna zainduz lortutako ekolizkin ekologikoak kontsumituz, zure osasunaz gain lurraren eta abereen osasuna zainitzen duzu, era berean nekazaritza iraunkorra bultzatzen ari zara.

BIZKAIGANEKO GAZTA

Beti Gazta Onda

AUTOAK, ETXEBIZITZA, ONTZIAK, PARTIKULARRAK, ENPRESAK, BIZITZA ASEGURUA, INBERTSIOAK...

Fernando Izaguirre
Eskoikiz, 6
48370 - Bermeo
946 187 099
egondra@segurosbilbao.com

Seguros Bilbao

Zulueta
Altzariak

Intxausti kalea, 18 BERMEO
94-688 33 21 • 652 77 61 94
Faxa. 94-618 72 94
oskarzulueta@hotmail.com



Enekoitz Esnaola

BERRIAko kazetaria

Zertarako

Eskualdeetako zazpigarren Hitzza izan zen Busturialdekoa, orain dela 15 urte sortua bertako eragileen eta BERRIAren artean. Aurretik sortu ziren, modu berean, Tolosaldekoa, Oarsoaldekoa, Lea-Artibai eta Mutrikukoa, Urola Kostakoa, Goierrikoa eta Donostiakoa. Astearen sei egunetakoak zazpiak ere, etxera banatutakoak —eskututakoei—, eta zortzina orrialdekoak —Donostiakoa, hamabikoa—. Euskaraz, jakina. Kalitateko kazetaritza helburu, horrek egingo zion ekarpena euskararen normalizazioari. Iritsi ziren eguneroko 40.000-45.000 aleko tirada edukitzera. Potentzia bat. 2008an hasi zen krisi ekonomikoak kaltetu egin zuen proiektua.

Baina eutsi egin zen, eta hor segitzen dute Hitzak, era batera edo bestera. Busturialdekoak, Lea-Artibai eta Mutrikoarekin batera paperean, eta bere kabuz sarean.

Osasun krisiaz gain, beste krisi ekonomiko bat bizitzen ari gara. Garai zailak datoz euskararentzat ere. Berririo, eustea tokatzen da. Baina baita pentsatzea ere nola indartu gehiago, nola zabaldu

gehiago. 2003an *Egunkaria* itxi zuen Espainiako Estatuak, eta erantzunetako bat izan zen, berehala BERRIA sortzeaz gain, Tolosaldeko kazetarekin jarraitu eta bi urte eta erdi pasan beste sei Hitzza martxan jartzea.

Tiradizoa du informazio lokalak; badu irismena, badu merkatua, badu eragina. Balio bat da gertutasuna, are gehiago lantzeko. Eremurik euskaldunenetan izan ahal da euskal prentsa erreferente(en)a.

2005eko abenduaren 15ean ikusi zuen lehen aldiz argia BUSTURIALDEKO HITZAK, eta, BERRIAren ordezkaritza periodistiko modura, pare bat hilabete pasatu nituen Bermeon, erredakzioari laguntzen hasierako urratsetan. Lehenengo bi hilabete haietan sarri geratu nintzen Bermeon lotan, Torre Ercilla pentsioan, atzera berri autoan neure etxeraino, Azpeitiraino ez bueltatzearren. 2013an Bermeoko

parte zaharreen sute ikaragarri hura gertatu zenean, akordatu nintzen Torre Ercillaz, ea zerbait gertatu zitzaien. Eta, jada aurreko ardura postuan ez nengoen arren, erreparatu nion HITZAK ezbeharri egindako jarraipenari: gertutasunez, informazio eta zerbitzu funtzioak bete zituen. Hori da herri informazioa. Horretarako sortu zen Busturialdeko Hitzza (ere).

Zorionak, eta urte askotarako!

Osasun krisiaz gain, beste krisi ekonomiko bat bizitzen ari gara. Garai zailak datoz euskararentzat ere. Berririo, eustea tokatzen da. Baina baita pentsatzea ere nola indartu gehiago, nola zabaldu gehiago

Iritzia

HITZAren hamabosgarren urteurrena dela eta idatz-begirada bat botatzeko eskatu didate. Hasiera-hasieratik egon ez arren, ilusioz bizi izandako gertaerak izan ziren orain dela hamabost urte. Tartean, BUSTURIALDEKO HITZAREN sorrera. Tartean, Astra gaztetxe-kultur-espazioaren okupazioa eta sorrera. Tartean, hamarnaka erakunde sinatutako Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa eta ETA erakundeak kargu politikoan aurkako kanpaina amaitutzat ematea. Hamabost urtek asko eman dute, hamabost urtek gutxi eman dute.

Hamabost urte eta zenbat paper erabili den ordutik hona. Digitalizazioak sekulako aurrerapausoa eman duen garaian, papera oraindik jaun eta jabe da eremu askotan. Hori ematen du behintzat. Azken hamabost urteetan papera egiteko erabiltzen den eukaliptoia landatu eta landatu besterik ez dugu egin gure eskualdean eta.

Hamabost urte hauetan, gizartearen erronka nagusiak aldatu direla esan

dute adituek. Orain bi ei dira: pandemia eta garapen iraunkor eta ekologikoa.

Aste honetan entzun berri dugu laster lehenengo txertoak kalean izango direla, eta hori entzute bakarrarekin boltsan batzuk milaka milioi euro egin dute gora, milaka milioi euro egin dute behe-bera beste batzuk; gure poltsak edo poltsikoak berdin xamar jarraitu arren.

Ematen du konponbidean dela pandemiaren arazoa, beraz.

Garapen iraunkor eta ekologikoaren inguruan, ordea, hankamotz gabilta, behintzat nire herrian eta eskualdean. Badakit zure etxera HITZA heltzeko ere eukaliptoia erabiltzen dela. Baina Interneten zera ere aurkitu daiteke: eukaliptoia uholdeak ematen diren lurraldeetan interesgarria da ur asko xurgatzen edo edaten duelako.

Tira, gurean bezala, uholdeak hain sarri izaten dira, hori konpontzeko eukaliptoia landatu eta landatu gabiltzala. Eta Ur Partzuergoak ikusten dituen sasoiko urgabeziak konpontzeko aurrerantzean ura Zadorratik -Araba- ekarriko dugu Urdaibaira.

Zorionak Busturialdeko HITZAri, hamabost urte hauetan hurbileko berriak hurbiltasunez ematearren. Ederra litzateke hamabost urte barru Gernikako Arborearen kimuetatik lortutako paperean inprimatuta egotea. HITZA iraunkor eta ekologikoa. Hamabost urte, hamaika zorion denoi.

Ederra litzateke hamabost urte barru Gernikako Arborearen kimuetatik lortutako paperean inprimatuta egotea



Alex Zubia

Ajangiz

Hamabost urtean behin







Kultur, hizkuntza eta hezkuntza komunitatearekiko ere konpromisoa erakutsi du BUSTURIALDEKO HITZAK eta lantaldeak bere ibilbidean. Korrikako edizio denetan parte hartu du (goian); ikastetxeetara bisitak egin ditu, proiektuaren berri eman eta kazetaritza generoak eta testu motak azaltzeko (behean, ezkerrean); eta Euskaraldian ere parte hartu du eta hartuko du, kazetariak eta lantaldeko kideek ahobizien rola hartuta. HITZA

ATXARRE
Taberna kafetegia

Antzora, 24
Laidako Hondartza
IBARRANGELU
94-627 65 67

Euskaraz bizi!

Gauteziz Arteagako Udala

**Ibarangeluko
Udala**

ibarrangelun euskara badabil!



Duela hamabost urte ikusi zuen argia BUSTURIALDEKO HITZAK, eta orduz geroztik, harpidedunak izan dira proiektuaren sostengua.

HITZAREN lantaldeak lehen eguneko ilusio berberagaz jarraitzen du euskara zaintzeko arduragaz lanean, baina tokiko informazioa profesionaltasunez eta euskaraz kontatzen jarraitzeko beharrezkoa da euskarazko komunikabideen kontsumitzaileen, harpidedunen eta eragileen ekarpena. 15 urte bete dituen proiektuaren etorkizuna bermatzeko, esku gehiagoren beharra berebizikoa da. Harpidedun izatea proiektua osotasunean babesteko modua da, eta HITZA ondo maitatzeko modurik zintzoena Hitzakide egitea da.

Elkarte, talde, eragile, udal eta norbanakoek esateko eta zabalatzeko aukarera eta, oro har, Busturialdeko informazioa modu gertukoan jasoko dute Hitzakide egiteko urratsa eman eta konpromisoa hartzen dutenek. Keinu txiki horri esker, euskararen normalizaziorako bidean pausoak ematen jarraituko du HITZAK. Eta bide hori irakurleagaz batera egingo du, harpidedunagaz, alegia.

Egunero gertatzen denaren berri izango dute harpidedunek. Urteko kuota ordainduta, martitzenetik barikura goizero jasoko dute egunkaria etxean, lantokian edota euren negozioetan: zortzi orrialdekoa martitzenetik egunera eta 32 orrialdekoa barikuetan, horietatik 16 orrialde Bizkaiko Hitzakoak.

www.busturialdea.hitza.eus atari digitaletan, gainera, klik bat eginez, eskualdeko errealitatearen berri edukiko dute. Webgunean, gainera, Hitzakideek eurei zuzendutako atal berezia ere badute. Unean uneko albisteak irakurtzeko aukera izateaz gain, el-



Hitzakide txartel arrosa bat.

Azken 15 urteotan ibilbide oparoa osatu du Busturialdeko Hitzak alboan izan dituen bidelagunekin. Eta aurrerantzean ere, horien guztien babesari eta hauspoari esker jarraituko du lanean.

Bidean aurrera egiteko beharrezko hauspoa

karrizketa, erreportaje eta albiste bereziak eskusiban bistaratu zaizkie, eta inork baino arinago irakurri ahal izango dituzte. Egunkariaren hemerroteka eta argazki galeria multzoak ere eskura edukiko dituzte uneoro.

Inoiz baino merkeago

Eta Hitzakide txartel arrosari esker, asteko zozketetan eta hileroko zozketa nagusian parte hartzeko aukera ere edukiko dute. HITZAREN sarean dauden hainbat

saltokitan eskaintza eta deskontu bereziak lortzeko modua ere badaukate Hitzakideek.

Abantaila horiek guztioriek eta gehiago lortu ahal izateko Hitzakide egitea beharrezkoa da. Aurtun, gainera, Bizkaia aurrerakultur bonuari esker, 2021eko harpidetza egitean edo berriztan 25 euro aurrezteko aukera egongo da. Promozioa harpidedun zaharrentzat zein berrientzat da. Harpidetza egiteko gaitasun bonu bat baino gehiago

erabili ahal dituzte harpidedun berriek: bata, abendura arteko harpidetza ordaintzeko eta, bestea, 2021eko ordaintzeko.

Deskontu horregaz baliatzeko B motako bonua eskuratu behar da Kutxabaneko orotariko kutxazainetan edo webgunetik. Ondoren, HITZAGAZ harremanetan jarri beharko da jasotako bonu kodea balioztatzeko: 94-684 44 36 + 1 luzapenera deituta edota lh@hitza.eus posta elektronikora mezu bat idatzita.

Hitzakide aukerak

HITZAKIDE

Egunkaria. Alor digitaletako abantailak. Webgunean kontua sortuta, albiste, erreportaje eta elkarrizketa bereziei buruzko aurrerapenak eta hemerroteka eta argazki galeria multzoak kontsultatzeko aukera.

Zozketak. Hitzakide txartel arrosari esker, asteko zozketetan eta hileroko zozketa nagusian parte hartzeko aukera.

Eskaintza. HITZAREN sareko saltokietan eskaintza eta deskontu bereziak. Abantaila horiek guztioriek eta gehiago, urteko 50 euro ordainduta.

HITZAKIDE HARPIDEDUNA

Egunkaria. HITZA etxean jasoko dute. Webgunean prentsa eskaintza osoa pdf formatuan deskargatu, aurrerapenak eskusiban irakurri eta hemerroteka eskura edukiko dituzte.

Zozketak. Aldiro-aldiri askotariko zozketetan parte hartzeko aukera.

Eskaintza. Abantailak, deskontu bereziak eta zerbitzuak eskuratu dituzte. Abantaila horiek guztioriek eta gehiago, urteko 77 euroko kuota ordainduta.

HITZAKIDE IRAGARLEA

Egunkaria. Prentsa eskaintza osoa paperean. Webgunean, egunkariaren hemerroteka pdf formatuan irakurri eta albiste, erreportaje eta elkarrizketa bereziak eskusiban aurrerapen modura irakurtzeko aukera.

Zozketak. Asteko zozketetan eta hileroko zozketa nagusian parte hartzeko aukera.

Eskaintza. Iragarkiak jartzeko unean uneko deskontuak. Bestelako abantailak, deskontu bereziak eta zerbitzuak ere eskuratu dituzte. Abantaila horiek guztioriek eta gehiago, urtean 77 euro ordainduta.



**Nabarnizko
Udala**

Herri euskalduna!

tf.: **94-625 50 77**



**EREÑOko
UDALA**

Elخالde, 10
48313 EREÑO
tf.: 94-625 46 21
faxes: 94-625 65 94
udala.erenobizkaia.org



urdaibai
aseguru artekaritza

Juan Kaitzada kalea 23- behea
48300 Gernika-Lumo

segurosurdabai@segurosurdabai.com

94-625 58 00

Eragile, herritar askoren bozgorailua izan da eta bada BUSTURIALDEKO HITZA. Ibilbide emankorra egin du, ahots askoren hitza izanez, eta horren errepasoa bilduko duen bideoa kaleratuko du urteurrenean.

Ahots askoren hitza

Hamabost urteko ibilbidean hamaika bidelagun izan ditu BUSTURIALDEKO HITZAK. Ezinbesteko laguntzaile fidelak. Asko eta asko izan dira sorreran zein ondorengo urteetan makinan bat behar egin dutenak euskarazko eskualdeko egunkariaren alde. Urteurrena ospatzeko, abenduan kaleratuko dugun bideoa prestatzen ari gara, mimo handiz. HITZAREN maitale kuttunak izan zirenak eta badirenak bilduko ditugu bertan.

Nork bere herriko kontuak euskaraz irakurtzea. Beste egunkarietan argitaratzen ez diren albisteak euskara hutsean ematea. Erronka eta ilusio horregaz jaio zen abenduan 15 urte beteko dituen nerabea. Egunkariaren sortze prozesuan buru-belarri ibili ziren Jose Ramon Muruaga, Jose Luis Bilbao eta Bitor Uriarte bermeotarrak. Ondo gogoan daukate nola batu ziren herriz herri, tokian tokiko talde eragileekin. Proiektua azaltzea eta harpidetzak bultzatzea izan zen euren zeregina. «10.000 harpidedun lortu gura genituen. Baikorraginen», dio Muruagak. Kultur, kirol, hezkuntza... alor askotako ordezkariak elkartu ziren batzarretan, eta Uriartek esan modura, «garrantzi edo protagonismo handia eduki zuten euskara taldeek eta eskualtegieko».

Batzarretan euskarazko erreferentziazko egunkari bat sortzeko ideia begiz onez ikusi zutela azpimarratu dute. «Printzipioz, eratze prozesu horretan administrazioak ez sartzea pentsatu zen. Gero, laguntza ekonomikoak eskatzeko udaletxe guztietara joan ginen. Biztanle bakoitzeko euro bat eskatzen zen. Batzuek pozik ematen zuten, eta beste batzuek ukatu egin zuten. Ekonomikoki defizitarioa izan da beti. Dirua eskatzen ibiltzen ginen udaletxe guztietatik eta foru aldundian ere bai, eta ukatu

egiten ziguten», azaldu du Uriartek. Muruagak aitatu du enpresak ekarpenak egiteari buruz eztabaidatu zutela, «enpresak laguntzaile izanez gero, independentzia galtzeko arriskua» zegoen eta.

Lehen alea kalean ikustean hunkitu egin zirela aitortu dute. «Lehen urtean denak gorde nituen», dio Uriartek. «Baita neuk ere, oraindik ganbaran ditut gordeta», gaineratu du Bilbao. Orain, hamabost urteren ostean, «erreferentzialtasuna» daukala ikusita pozik daude. Bilbaoren berbetan, euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko tresna garrantzitsua izan da eta bada: «Lehen euskaraz irakurtzen ez zuten batzuek, orain HITZA hartu eta ahalegina egiten dute. Parte horretatik ere irabazi da».

Edizio digitalek indarra hartu duten aro honetan, etorkizunagatik galdetuta ezkorra da Muruaga. «Laguntza ekonomikoak badauka, eta militantziagatik jarraitzen badugu, iraun lezake. Jende askok militantziagatik egiten du harpidetza, eta militantzia galtzen doan gauza bat da». Uriarte, oster, baikorra da: «Momentu honetan ez dut papeleko irakurtzen, Interneten PDFa irakurtzen dut. Orain baliabide berriak bilatu behar dira, eta Hitzak eta *Berria* tren horretan igota dabilta. Garrantzitsuena euskaraz irakurtzea da».

«Ekarpen garrantzitsua»

Herritik, herri mugimenduetatik sortutako proiektuak zer diren ondo baino hobeto daki Naxi Aranburuk. Hamaikatzu saltsatan murgilduta egon da eta dago. HITZA azken hamabost urteetan Busturialdeak eduki duen ekarpen garrantzitsuenetakoa dela uste du naxitiuarrak. Sortzean «mundu berri bat» agertu zitzailea nabarmendu du. «Egunero egunkari bat gure hizkuntzan irakurtzeko aukera zabaldu zitzaigun, zailtasun guz-



tiekin, baina hor dago. Ekarpen hori behar zen, eta ikaragarria izan zen. Euskalzaletontz ez ezik, beste edozeinentzat ere gaur egun erreferente bat da. Uste dut Naxituan ez dagoela inor HITZA irakurri ez duenik. Eta ezagutzen dut adin bateko jendea HITZAGAZ euskaraz irakurtzen hasi zena. Edozeinentzat da erakargarria».

Zehaztu du euskarazko proiektu batek, komunikabide batek eduki beharko lukeen sustapen ekonomikoak zer pentsatua eman diola hasiera-hasieratik. «Babes eta sustatze ekonomikoak beharrezkoa du, batez ere instituzioen aldetik, eta hemen udalen aldetik, koloreak albo batera utzita. Hor egon behar dugu herritarrok eta guk aukeratu ditugun ordezkariak».

Bere iritziz, Busturialdeko errealtatea erakusteko eduki duen «ikuspegi zabalarri eustea» da hamabost urtez iraun izanaren zutabe nagusietako bat. Euskal kazetaritza, eta euskal prentsa oraindino egiteko dagoela dio: «Lehenengo pausoak ematen ari garela argi eduki behar dugu. Teknologia daukaten indarragaz batera, kointzente izan behar gara hastapenetan gaude-la, bai euskararen normalizazioari begira, eta kazetaritza begira».

HITZA egunero argitaratzeko bertako langileen inplikazioa garrantzitsua izan da. Beharrean ma-

kina bat ordu aritutakoak dira Maite Orue gernikarra eta Gentzane Uriarte bermeotarra, eta proiektuaren hasiera «ilusioz betetako unea» moduan gogoratu dute. Ikasi zuten horretan etxetik gertu lan egitea «aukera bat» izan zela esan dute: «Aukera profesional handi bat. Gainera, lehenengoz euskara hutsean lan egiteko aukera izan zen».

Hauspoen beharra

Martxan jartzeko lehen hilabeteak «gogorak eta estres momentuz betetakoak» izan ziren: «Ordu asko sartu genituen. Zerotik hastea zen, eta ez genuen elkar ezagutzen. Oinarria bazegoen, beste HITZA batzuk sortuta zutela, eta hortik pila bat ikasi genuen». Jende askok proiektua ezagutzen ez zuela eta, azaltzeko ahaleginean ere orduak eman zituzten, eta kexei zein oztopoei aurre egiten ere eskarmentua hartu dute HITZAN. Ibilbidean «harri asko topatu» dituzte, eta horiek gainditzea «oso gaitza» izan da. «Eskerrak langile denei. Langileek lan itzela egin dute, eta horri esker hamabost urte bete dituzte», zehaztu du Oruek.

Argi daukate harpidedunen eta langileen inplikazioari eta konpromisoari esker biziraun duela proiektuak. Bere bidea egiten jarraitzeko, diru laguntzez gain, jende gehiagoren inplikazioa ezinbestekoa duela uste

dute: «Eskualdeko erakundeetatik hasi, eta aldundiaren eta Jaur-laritzaren inplikazioa behar da. Diru laguntzak beti egon dira eskas, eta beti izan dira beharrian nagusietako bat, eta beste parte batetik herritarren sostengua, ekonomiko eta erraztasunak ematea», esan du Oruek. Uriartek berbetan, «udalak gehiago inplikatu» beharko liriteke, HITZA «erakusleho handi bat» delako. «Ez diote etekinik ateratzen».

Bien iritziz, jende askok oraindik ere egunkaria bera esku artean edukitzea eskatzen du, baina gaur egun sare sozialak eta Internet dira gakoa: «Gazteengan eragin gura bada, bide horiek erabili behar dira».

Rosalina Iturbe Busturiko Hirugarren Adinekoen Elkarteak presidente zela egin zen BUSTURIALDEKO HITZAREN harpidedun. Jakin badaki HITZAK webgunea ere badaukala eta sarean ere irakurtzeko aukera daukala, baina Iturbek papera gura du. Papera mantentzearen aldekoa da.

Busturiarrak egunero irakurtzen du HITZA: «Gosariaren post-trea da». Egunkaria «bere ikastola» izan da: «Nik ezin izan dut euskaraz ikasi. HITZAGAZ ikasi dut euskaraz irakurtzen eta idazten. Ez dakidanean berbaren bat zelan idazten den, HITZA begiratzeko dute». Dioenez, HITZA du lagunik onena. Egunkari osoa irakurtzen du, albiste guzti-guztiak. Etorkizun «luzea» ikusten dio HITZARI: «Ume eta gazteek dena ikasten dute euskaraz, eta oso baliagarria dute».

Sortze prozesuan Ibarangelun eratu zuten taldeko kidea da Begoña Ziluaga, eta dioenez, ez zuten pentsatzen «horrenbeste irau» zuenik. Gaur egun, baina, etorkizuna ikusten dio proiektuari. «Horretarako derrigorrez instituzioen laguntza behar du, bestela ez du segiko aurrera. Hori argi dago. Ez HITZAK bakarrik, euskarazko hedabide guztiek eta euskarak berak ere instituzioen laguntza behar dute».

Herrian antolatzen dituzten ekintzak eskualdeko egunkarian agertzea garrantzitsua dela deritza: «HITZARI esker enteratzen gara herri guztietan egiten diren ekintzekin. Sarritan eredu moduan ere hartzen ditugu beste herrietakoak. Beste egunkari batzuk ere irakurtzen ditut, baina HITZA irakurtzen dut beti lehenengo, alboko herrietan zer dagoen, zer gertatu den jakiteko. Herri txikiok ez gara heltzen beste egunkarietara; gu zuegana heltzen gara. Gure egunkaria zuek zarete».



«Gaur egun ez dago HITZA betetzen duen lekua betetzen duenik»

Juan Karlos Goienetxea
Bermeoko alkate ohia

HITZA proiektua orain dela 15 urte jaio zen. Zu alkate zinen Bermeoko Udalean. Nola bizi zenuen proiektuaren hasiera? Beste HITZA batzuk bazeuden dagoeneko, Gipuzkoa aldetik gehienak. Harreman handia geneukan Martxelo Otamendi Berria-ko zuzendariagaz. Josu Iñaki Unanuek izan zuen horretan indar handia, euskararen aldeko lan handia egin zuen, eta bidaia bat baino gehiago egin zituen Andoainera. Herri euskalduna izanik eta Euskara Sail bizi batezagaz, udalean argi genuen BUSTURIALDEKO HITZAREN aldeko apustua egin behar genuela. Eskualdeko egunkaria edukitzea garrantzitsua zen, bultzatzaileak, gainera, herritarrek ziren. Udal modura, hortaz, babesa ematea erabaki genuen.

Zer ekarpen egin zion egunkariak herriari? Eta euskarari?

Gure sasoiarentzako euskaraz alfabetatzeko bide bat izan zen eta da. Euskaraz ikasi ezin izan dugunontzako eta gerora euskaraz alfabetatzeko bidea egin dugunontzako aukera ona izan zen. Euskaraz irakurtzea kostatzen zitzaigun, alfabetatugabeak ginen, eta lagundu egin digu. Herritarrek euskaraz irakurtzeko ohitura hartu ahal izan dute. BUSTURIALDEKO HITZA bultzada eman zuen. Zoritxarrez, orain, jendea alfabetatuta dagoen arren,

euskararen erabilera Bermeon beheraka doa. Herriari, berriz, bertoko informazio hurbila edukitzeko aukera eman zion. Beste komunikabide batzuetan lekua edukitzen ez zutenak lekua zuten BUSTURIALDEKO HITZAN; zabal gauza batzuk, gainera, eta euskaraz. Besteetan puntualki baino ez zen Bermeo agertzen, zerbait garrantzitsua gertatzen zenean baino ez.

Administrazioen laguntza beharrezkoa da?

Baietz uste dut.

Diru laguntza handia ematen hasi zen Bermeoko Udala. Gerora diru laguntzak murrizten joan dira. Zelan ikusten duzu?

Ni orain ez nago udal barruan, ez dakit orain banaketa zelan egiten duten. Orduan Euskara Saila arduratzen zen euskaragaz lotutako proiektuei diru laguntzak bideratzeaz. Gauza da udalaren baitan sail asko daudela. Diru sarreraren arabera banaketa egin ohi da; zenbat eta talde edo proiektu gehiago, gehiagoren artean banatu beharra dago dagoen dirua. Azken finean, aurrekontua alkateak aurkeztu behar du, nahiz eta logikoki sailekin eta oposizioagaz berba egiten duen lehenengo. Orduan, euskara bultzatzen zuten eskolentzako diru laguntzak ere ematen genituen, horretarako zaku bat zegoen. D eredua eskaintzen zutenek jasotzen zuten udalaren diru laguntza. Gogoratzen dut, gainera, Jose Done ikastetxeagaz arazoak izan genituela. Hark ez zuen D eredurik eskaintzen, diru banaketan, hortaz, ez zuen sartzen. Logikoki atea zarratu zituen, ze bizitza eduki ahal du Bermeon D eredua ez duen ikastetxe batek?

Zer nolako etorkizuna ikusten diozu zuk HITZA proiektuari?

Jarraipena behar duela uste dut, nahitaez. Askok dira gaztelaniazko komunikabideak eta gutxi euskarazkoak edo euskarari lekua eskaintzen diotenak. Nik, normalean, Gara irakurtzen dut, eta horretan, zorionez, artikulu asko euskaraz dira. El Correo eta Deia-n oso gutxi dira euskaraz idazten dituzten albisteak. Euskarazko informazio hutsa jaso gura dutenek Berria-ra jo behar dute. Halere, HITZAk betetzen duen lekua betetzeko, gaur egun, ez dago besterik. Horregatik pentsaten dut beharrezkoa dela proiektuak jarraitzea, eta derrigorrezkoa dela, gainera.



«Eskualdearen eta euskararen ikuspegia hutsik legoke HITZA barik»

Jabier Ondarza
Muruetako alkate ohia

HITZA proiektua orain dela 15 urte jaio zen. Alkate zinen Muruetako Udalean eta hasieratik erabaki zenuen babesa ematea. Zergatik?

Hala da bai, Muruetako Udala hasieratik egon da proiektua babesten. BUSTURIALDEKO HITZA hutsik zegoen leku bat lantzeko aukera emango zuela uste genuen. Bi arrazoi ikusi genituen proiektua babesteko. Batetik, bertoko herriei eta bertoko gertakizunei lekua emateko prentsa agertzeraz zihoan. Bertoko gauzei prentsa orokorrak eman ezin zion lekua betetzera zetorren. Eskualdekoa izatean, bertoko herriei eta gertakizunei leku zabala emateko aukera eskaintzen zuen. Ondo eta beharrezko ikusten genuen, gainera, alde hori. Bestetik, euskarari bultzada bat ematera ere bazetorren, euskara indartzeko ekimen bat modura ikusten genuen. Bertokoa eta eguneroko joan-etorriak euskaraz idatzita ateratzeko euskaraz irakurtzeko zaletasuna piztuko zuela uste genuen. Herrikeri herri ez ezik, etxetik etxetik iristeko aukera eskaintzen zuen, eta oraindik egiten du, auzoetara ere iristen baita. Lehen aipatzen nuen hutsune hori betetzeko tresna bat zen, hortaz, Udal mailako apustua egiten genuen gure taldetik, eta kasu honetan, udaletik haratago eskualdea lantzeko aukera ere ematen zuen.

Herritarrek zelan ikusi zuten?

Orokorrean ondo. Euskaraz irakurtzeko ohiturak zabaldu behar dira. Oraingo gazteek eskoletan hartzen dute ohitura hori, lehengo belaunaldietakoek, aldiz, ez zeukaten ohitura hori, gaztelaniaz egin baitzituzten ikasketak. Eta, HITZA lagundu egin du horretan. Hasieran, agian, euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez zeukatenentzako nagia eman ahal zuen. Baina HITZA tiratu egin zituen, eta nagi hori kentzeko baliogarria izan da.

Zure ustez orduan, HITZAk herriari eta euskarari emandakoa baliogarria izan da?

Bai, eta gaur egun ere lehen aipatu dudana lekua betetzen jarraitzen du HITZA. HITZA egongo ez balitz, hutsik edo erdi hutsik egongo litzateke bai eskualdearen ikuspegia baita euskararen ikuspegia ere.

Alkate modura erabili zenuen HITZA herriko informazioa zabaltzeko?

Bai, erabili izan dut. Prentsa orokorraren baten izango ez lukeen lekua eman die HITZA Muruetako Udalaren albistei. Hala ere, nire pentsamendua beti izan da ez dagoela norberaren erakutsia eman beharrik, hau da, udalak ez duela bere propaganda egiten joan beharrik, egunkariak ere bila etorri behar duela.

Administrazioen laguntza beharrezkoa dela uste al duzu?

Bai. Uste dut ikasi behar dugula administrazioaren laguntza barik jokatzen, baina gauza batzuetan ezinezkoa da. Hizkuntza aldetik administrazioak ez badu jartzen bere aldeko laguntza hori, benetan zaila da bizirautea. Euskarazko prentsak bere mugak ditu, eta, hortaz, administrazioak laguntzen jarraitu behar duela uste dut.

Ze etorkizun ikusten diozu HITZA proiektuari?

Etorkizun zaila ikusten diot, baina prentsari orokorrean. Gaur egungo informazio ohiturak epe laburretara eta erakargarrietara bideratuta daude, benetako kazetaritzara baino. Alde horretatik, lehiakortasun handia dago. Hala ere, prentsa orokorraren moduan, ikusten dut HITZA ere formatu digitalerara egokitu dela, eta batera edo bestera informazioa eskaintzen jarraitzen duela. Orain, ez nago Muruetako Udalean, baina nik neuk nire bultzada pertsonala ematen jarraituko dut proiektuak aurrera egin dezan.

MENDATAKO UDALA

GAUR EUSKARA LANDUZ, ETORKIZUNERANTZ!

94-625 47 22

Arratzuko Udala

Ibarra Baserri Tresnak, S.L.

Nekazal tresnen salmenta eta konponketa • Mangera hidraulikoak eta rakorrak

TORO Husqvarna auto mowder

HONDA ECHO BCS

Jon Arriaga Goirizelaia
Ibarra Kalea 12-36 par. GERNIKA-LUMO
94-625 04 88 • ibarratresnak@yahoo.es



«Oso argi ikusten
zen HITZA
beharrezkoa zela
eskualdean»

Maite Zarate
Bermeoko Euskara teknikaria

BUSTURIALDEKO HITZAK 15 urte egiten ditu abenduan. HITZAREN sorrera bizi izan zenuen. Zelan gogoratzen dituzu momentu horiek?

HITZA sortu aurretik, Hitz Batzordean ere egon nintzen. Martxan jarri aurretik lan asko egin zen. Oso argi ikusten zen HITZA beharrezkoa zela eskualdean, eta ilusio handiagaz lanean egon ginen batzordean egon ginenok. Pausoz pauso joan ginen, Andoaingo lankideekin. Handik ere batzarretara etortzen ziren, eta gutxi-gutxika herrian lekua egiten joan ginen. Jardunaldiak ere antolatu genituen proiektua zabaltzeko.

Momentu horretan beharrezkoa ikusten zenuen euskarazko egunkari bat?

Bai, dudarik ez. HITZAK orduan zeukan eta oraindik edukitzen jarraitzen duen balioa, nire ustez, hurbileko informazioa euskaraz jasotzeko aukera ematea da. Hori asko baloratzeko kontua dela uste dut. Azken batean, aktiboak diren sektore guztientzako leiho ireki bat. Egiten denaren edota proiektu berrien berri emateko aukera eskaintzen du, herritarrei informazioa zabaltzeko.

Hasierako lan horren guztiorren ostean, ilusioagaz kaleratu zenuen lehenengo zenbakia, ezta?

Bai, gogoratzen dut ilusioa handia zela

urte horretan. Herriko kolektibo guztiak eta jende asko mugitu zen. Jende askok lan egin zuen HITZA kalera ateratzeko.

Ze hutsune bete du HITZAK euskarari dagokionez?

Informazio alorrean gure inguruan gertatzen denaren berri euskaraz irakurtzeko aukera eman zuen eta ematen du. Orduan hutsune hori bazegoen. Lehenengo, egunero kaleratzen zen: Gerora, murritzketengatik, Lea-Artibai eta Mutriku-gaz batu beharra egon zen, eta, beraz, leku gutxiago geratzen da herri bakoitzarentzako. Baina hori ere polita da, elkarren ondoan dauden eskualdeen berri ere badaukagulako. Gure errealitatea apur bat zabaltzeko aukera ere ematen du.

Oztopoz betetako 15 urte. Administrazioaren laguntza beharrezkoa dela ikusten duzu?

Bai, erabat, inolako dudarik barik. HITZAREN hasierako asmoa izan zen administrazioen laguntzagaz hasi eta geldika-geldika proiektua bideragarriagoa egin eta menpekotasun hori gutxitzen joatea. Gauzak, baina, ez dira mundial etorri, eta oraindik ere, gaur egun administrazioaren beharra dauka bai HITZAK bai eta ere euskal prentsak orokorrean.

Beharrezkoa ikusten duzu HITZAK etorkizun bat izatea? Zer behar da horretarako?

Bai, dudarik barik. Baliabide gehiago behar harko lirakeke, nire ustez. Egunkaria egunkari izateko eta apur bat gehiago zabaltzeko, giza baliabide eta baliabide ekonomiko gehiago beharrezkoak lirakeke. Herritarren artean ere pedagogia egin behar harko litzatekeela uste dut, eta baliolan jarri HITZAK euskal komunitateari ematen dizkionak.

Zuk zeuk ze etorkizun ikusten diozu HITZARI?

Ez naiz igarlea, eta ez dakit momentu honetan gauzak zelan egongo diren. Bermeoko Udala hasiera batetik egon da ekonomikoki laguntzen, baina ez dira izan asko laguntza eman duten udalak. Garrantzitsua litzateke udalak edo administrazioak HITZAREN balioaz ohartzea. Ez gara konturatzen euskal hedabide baten balioaz desagertzen dena arte, mezu hori zabaltzeko izan da euskal prentsaren aldeko kanpainetan. Orduan, egin dezagun lan positibo bat hori gertatu ez dadin.



«Normalizazio
linguistikorako
ezinbesteko tresna
dugu HITZA»

Bittor Zarrabeitia
Gernikako Euskara teknikaria

BUSTURIALDEKO HITZAK 15 urte beteko ditu abenduan. HITZAREN sorrera bizi izan zenuen. Zelan gogoratzen dituzu momentu horiek?

Gizarte mailako eragileen arteko akordioa izan zen. Bultzada horrek gizarte mailan hartu zuen indarrak eragin zuen instituzioek ere proiektuari baietza ematea. Gizartetik abiatutako ekimena izan zen, eta gizartearen bertan hartutako indar horrek eragin zuen instituzioen inplikazioa.

Momentu horretan beharrezkoa ikusten zenuen euskarazko egunkari bat?

Derrigorrezkoa zen eta da toki mailako euskarazko egunkaria izatea, horrek jendea irakurtzera bultzatzen duelako eta irakurtzeak, berriz, alfabetatzera eta euskararen erabilera bultzatzera. Euskal Herrian bazegoen euskarazko egunkaria, baina tokian tokikoa ez. HITZA aurretik, inguruan egin ziren beste ekimen batzuk: *Deiadar*, esaterako. Udaletik bultzatutako proiektua izan zen, eta HITZA sortzeko aukera izan genuenean, HITZAREN aldeko apustuagaz bat egin genuen. Hemen telebista geneukan. Udaletik bultzatutako proiektua izan zen hura, eta irratian ere bazegoen esperientzia.

Ze hutsune bete du HITZAK euskarari dagokionez?

Tokiko albisteak tokiko komunikabide baten bitartez edukitzea lortu da. Herritarrek hurbileko albisteak eta hurbileko gizarte ekimenen berri euskaraz jasotzea lortu da, modu erakargarrian, gainera.

15 urte oztopoz beterik. Administrazioaren laguntza beharrezkoa dela ikusten duzu?

Nik beti gura izan dudana eta lortu behar duguna da euskarazko baliabideak eta komunikabideak nolabaiteko autofinantziazioa izatea. Izan ere, horrek esan gura du gizartearen ere behar den besteko indarra lortu dutela. Baina, zoritxarrez, ikusten da euskarazko komunikabideen bizi-raupena ez dela bideragarria instituzioen eta diru publikoen dirurik barik. Hori da hobetu beharreko kontua.


Zer behar da horretarako?

Nik beste pauso bat emango nuke, beste apustu bat egin. HITZA bera prezio sinboliko batean bada ere, salgai jarriko nuke edozein lekutan; beste prentsak egiten duen moduan, alegia. Hori horrela, beste egunkariekin parekatzea, eta apurka-apurka beste diru iturri batzuk eskuratzea lortuko zen, proiektua egonkortzeko. Baita proiektuaren hedapena zein den jakiteko ere. Izan ere, 15 urte pasatu dira, eta baldintza berdinetan egotea kaltegarria da normalizaziorako eta proiekturako. Sasoi batean kolokan zegoen HITZAREN bizi-raupena, eta horregatik beste maila batzuk jorratu behar harko lirakeke. Uste dut harpidetza dugunok proiektuarekiko konpromiso bat dugula, baina hortik aparte, proiektua bera apreziatu egiten da, eta ez dakigu zenbateraino. Horregatik, proba bat egingo nuke. Izan ere, papezko edizioa asko baloratzen da. Digitalean, bestelakoa da egoera. Euskarak daukan zirrikituetatik eutsi behar zaio.

Beharrezkoa ikusten duzu HITZAK etorkizun bat edukitzea? Zertarako da baliagarria?

Ezinbesteko tresna dugu normalizazio linguistikorako, komunikabideen arloan zein gizarte mailan. Hurreko baliabide bat da. Komunikabide batek ematen duen zerbitzua euskaraz izatea ezinbestekoa da paisaia linguistikorako, irakurmena lantzeko, gizarte mailan egiten diren jendearen arteko harremanak euskaraz izatea bultzatzeko... Horrek denak dakarren katea bultzatzeko garrantzitsua da HITZA.





2005etik gaur arte, HITZA unean uneko egokitzenak egiten joan da, paperetik Interneteko jautzia emanez. HITZA

Garai berrietara egokitzen

Hamabost urtean garai berrietara egokitzen jakin du egunkariak • Internet eta sare sozialetara jautzia eman du herritarrei momentuko eta gertuko informazioa eskaintzeko

Busturialdeko euskalgintzak, gizarie eragileek eta Berriaren Euskarazko Komunikazio Taldeko Bertako Hedabideak egin-dako ahaleginari esker jaio zen 2005eko abenduan BUSTURIALDEKO HITZA. Bermeoko frontoian egin zen aurkezpena, eta bertan banatu zituzten Busturialdeko euskarazko lehen egunkariaren aurreneko aleak.

Busturialdeko herri informazioan euskarazko prentsak zeukan hutsunea bete asmoz pape-rean ikusi zuen argia lehenengo.

Eskualdeko informazioan erreferente eta euskararen normalizazioan lagungarri izango zen kalitatezko egunkaria izatea zuen helburu. Egunkaria ezagutza emateko 0 zenbakia urriaren 31n ateratu zen, eta 1. zenbakia abenduaren 15ean zegoen kalean. Hogei herriren berri ematen du lehen argitalpenetik: Bermeo, Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Murueta, Forua, Ea, Gernika-Lumo, Mendata, Gautegiz-Arteaga, Elantxobe, Nabarniz, Ibarangelu, Muxika, Ajangiz,

Kortezubi, Ereño, Errigoiti eta Morga.

Hasiera batean astean sei aldiz banatzen zen, martitzenetik domekara, baina diru laguntza faltagatik, 2007ko otsaila eta gero, martitzenetik zapatara bitartean argitaratzen hasi zen. Laguntzak ez ziren heltzen, eta egoera ekonomiko okerragatik, batez ere diru laguntza publikoen urritasunak eraginda, LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZAGAZ bat egin zuen. 2010eko azaroaren Sean argitaratu zen batu ondorengo

lehen zenbakia. Batzera behartuta egon arren, produktuen kalitatea mantentzea ez eze, hobetzea ere izan zen erronka; bideari eutsi eta eskualdeko informazioa ahalik eta ondoen lantzen jarraitzea etorkizunean ere.

Martitzenetik barikura, egunerokaleratzen da egun; zortzi orrialdekoa da martitzenetik egunera, eta berezia, 16 orrialdekoa, barikuetan. Horregaz batera banatzen da 16 orrialde dituen *Bizkaiko Hitz*a ere.

Paperagaz gain, etorkizunari

aurrea hartu eta garai berrietara egokitzen ere jakin du BUSTURIALDEKO HITZAK. Horrela, pape-rean sortu eta denbora gutxira, Interneten ere eskura egon zen egunkaria, herritarrek ahalik eta modu bizkorrean eta zuzenean informatzeko. 2006ko uztailaren Sean martxan jarri zen webgunea, baina jauzi handia goa eman zuen oraindik, handik urte batera. 2007an webgunea berritu eta edizio jarraituari ekin zion, eta herritarren eta gizarte eragileen leihoa ere bilakatu zen webgunea, atal berriekin: blogak, bideoak, Zurea da Hitz, el-karriketa digitalak... Horrela, irakurleek eta gizarte eragileek bidalitako argazkiek, iritziek eta albisteek ere hartu zuten lekua HITZAN. Webgunearen diseinu aldaketagaz batera paperaren diseinuk ere eraldaketa eduki zuen.

Baina kazetaritza zein Internet, etengabe berritzen ari diren bi mundu dira, eta beste gauza askotan bezala, HITZAK egokitzen jarraitu du aldiro-aldiro. Horrela, sare sozialetan –Facebook, Twitter eta Instagram– ere informazioari zabalkundea ematen zaio. Aldi berean, sare sozialak herritarrekin harremanetan egoteko bide ere badira.

Egoitzak

Herritarrengandik eta herritarrentzako sortutako proiektua da HITZA, eurekin eta eurentzako. Hori dela eta, euren gandik hurre egotea ezinbestekoa da BUSTURIALDEKO HITZARENtzat. Bide horretan, bulego bi ditu egunkariak, bata Bermeoko Atalden, eta bestea, Gernika-Lumoko Elbira Iturri kalean. Bertan hasi zen duela hamabost urte egunkaria, eta bertara itzuli da berriro. Bai aurrez aurre, bai egunkariak ematen dituen zerbitzuen bidez egon nahi du HITZAK herritarren ondoan eta haien eskura.

SEBER ALTUBE IKASTOLA
IKASLEAK ERDIGUNEAN, ETORKIZUNA GAUR

www.seberaltubeikastola.net 94 627 00 03

www.eleizaldeikastola.eus

barne diseinua _berritze lanak

olaeta
gremioen arteko koordinazioa

juan kaltzada 12
gernika-lumo
656 745 004

Lau urtean ia bikoiztu egin dira webguneko erabiltzaileak

Bisitari gehienak mugikor bidez sartzen dira Interneteko atarira • Erabiltzaileen artean emakumezkoak dira nagusi • Sare sozialetatik datoz erabiltzaile gehienak

Azken urteetan gero eta gehiago dira Busturialdeko informazioa Hitzaren webgunean kontsultatzen dutenak. Eta horren adibide da azken lau urteetan webguneko erabiltzaileak ia bikoiztu izana; 2016. urtean 4.940 erabiltzaile zituen Interneteko atariak, eta gaur egun 8.377 inguru dira.

Erabiltzaile gehienek Busturialdetik bertatik kontsultatzen dute webgunea (%47), baina Euskal Herriko eta Espainiako beste hiri batzuetatik ere kontsultatzen dute: Bilbo, Gasteiz, Donostia, Madril (Espainia), Bartzelona eta Valentzia (Herrialde Katalanak). Horiez gain, munduko beste herrialde batzuetatik ere eskualdearen berri edukitzen dute.

Busturialdeko herrien artean, oster, Gernika-Lumoko eta Bermeoko albisteak dira gehien irakurtzen direnak.

Erabiltzaileen adina

Webguneko bisitak gehitzearen garrantzia handia sare sozialen inaktuari ere badagokio. Izan ere, bisita gehienak sare soziale-tatik heltzen dira (%47,54). Eta sare sozialen artean, Facebook da nagusi (%85,63).

Oro har, webgunea bisitatzen duten erabiltzaile gehienak emakumezkoak dira (%55,3). Eta adinari dagokionez, 45-54 urte bitartekoak dira gehienak. Adinaren arabera zerrenda horretan, 55-64 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak bigarren eta hirugarren postuetan daude.

Bisita gehienak mugikor bidez egiten dira; sare sozialetan Facebook da nagusi

Bestalde, gailuei dagokionez, webgunea kontsultatzen duten erabiltzaile gehienak mugikor bidez sartzen dira Hitzaren webgunera (%73,94); ordenagailuz egiten diren kontsultak %23,71 dira, eta tabletetatik egiten direnak %2,35.

Mugikorren erabileraren gorakadaren jakitun, Hitzak webguneko atal guztiak mugikorrerara egokitu zituen 2019. urteko urtarirlean. Hala, gaur egun orrialde bereziak, zozketen atala eta beste hainbat mugikor bidez kontsultatu daitezke, inolako arazo barik. Eta aurrera begira ere, joerretara egokitzen joango da atari digitala.

‘Asteko albistegia’ saioa, 2012tik 2015eko uztaiera arte

Herritarrei aste osoko albisteak bestelako formatu batean eskaini aldera, BUSTURIALDEKO HITZA Aste-ko albistegia saioa eskaintzen hasi zen 2012ko azaroaren 15ean.

Ikus-entzunezkoak hartzen ari ziren garrantziaz jabetuta hasi zen saioa. Funtsean, albistegiak aste osoan albiste izandako berri garrantzitsuenak jasotzen zituen, modu motz batean, Oihana Cabello kazetariak aurkeztuta. Helburua zen herritarrei tokiko informazioa bestelako formatu batean eskaintzea.

Astero eskaintzen zen saioa, barikuetan, BUSTURIALDEKO HITZAREN webgunean. Dena dela, ikusleek HITZAK Youtube plataforman daukan kanaletik ere zuzenean ikusi ahal izaten zuten.



Oihana Cabello, HITZA

Albistegiari amaiera emateko, aste osoan egunkarian agertutako zorion agur guztiak jasotzen ziren. 2015eko uztaieraren 17an eten zen arte, 103 saio eskaini ziren.

Saioa egitea erronka bat izan zen lantaldearentzat. Alde bate-tik, eguneroko eginkizunen arte-an grabaketak egiteko tartea atera behar izaten zelako. Bestetik, oinarritzko baliabideekin egiten zelako.

Edonola ere, Busturialdeko herritarrei zer edo zer berezia eskaintzea zen asmoa, eta bi urte eta erdiz horren aldeko apustua egin zuen lantaldeak.

Saio horiek guztiak gaur egun ere ikusgai daude, Hitzaren Youtubeko plataforman, bilaketan «albistegia» hitz gakoa erabilita.



Inigo Lopez de Haro 2, Gernika
Tel. 94 625 32 03

Bulegoak: Juan Kaltzada, 8 • GERNIKA-LUMO
tf.: 94-625 00 85 / faxa: 94-465 34 08
Tanatorioa:
Goikoibarra Industrialdea, 30-15b pab. • GERNIKA-LUMO
Krematorioa:
Basokoetxe Industrialdea, 4 • ISPASTER
info@funerariauribe.com • www.funerariauribe.com

www.clubcampos.com



*15 urtez **HITZA**rekin lankidetzan
euskararen alde!*



www.maier.es



SANTOS -en banatzaile ofiziala
www.santosarriandi.com



ARRIANDI
 SUKALDE ETA ETXEKO ALTZARIAK

ABADIÑO • 94-620 26 56

Urbitate poligonoa, 6 - 3. lokala
 (Eroski aurrean)
abadiano@arriandi.com

GERNIKA-LUMO

• 94-625 07 85

Industria kalea, 13
abadiano@arriandi.com

Herritik sortu zen HITZA proiektua, eta herriak hauspotu du momentu zailenetan ere. Gorabeheratsua izan da proiektuaren ibilbidea, baina haren aldeko keinuak ugariak izan dira.

Herritarrek eman diote arnasa

Zuk barrutik nik kanpotik tira, herria indartzzen ari da». Hala dio abes-
tiak, eta esparru askotan ha-
la izan da, baita herri komunika-
bideen kasuan ere.

Herrikoa izaten jaio zen BUSTURIALDEKO HITZA komunikabi-
dea, euskara hutsezko proiektu
komunikatibo bakarra eskual-
dean. 2005. urtean hasi zuen
ibilbidea, eta 15 urte beteko ditu
abenduaren 15ean. Bidean ozto-
poak aurkitu ditu, baina horiek
gainditzeko laguntza eduki du:
herritarren laguntza. Herri-
rrek bultzatutako talde, elkarte
eta eragileen laguntza.

Hasierak ez dira izaten erra-
zak, eta BUSTURIALDEKO HITZA ez
da salbuespena izan. Hasi eta
abiadura hartzeko behar zuen
bultzadaxoa eman zioten Ger-
nika-Lumoko gazteek 2007. ur-
tean, hainbat eragilegatz batera.
Hitza aurrera kartelak eskue-
tan, Gernika-Lumoko kaleak ze-
harkatu zituzten manifestazio
jendetsuan. Gauean, hainbat
jende batu zen Astran eta Trin-
kete Antitxokoan antolatu zituz-
ten kontzertuetan. Trinkete An-
titxokoan jo zuten The Killmi-
nisters bakiotarrak eta Marki-
na-Xemeingo Aterkings taldeak.
Astra gatzetxean, berri, Iruñea-
tik etorritako Leihotikan eta
Busturialdeko The Uski's talde-
ak egon ziren. Jaialdian batuta-
ko dirua BUSTURIALDEKO HITZAREN



BUSTURIALDEKO HITZAREN aldeko manifestazioan parte hartu zuten ehunka lagunak, 2007an. HITZA

egoera ekonomiko zailari aurre
egiteko izan zen.

Babesa bertsotan

Asko izan dira 15 urteko ibilbide-
an HITZA proiektuak heldu di-
tuen eskuak; elkarlanerako izan
dira asko, eta aurrera egiten la-
gundu diotenak beste batzuk.
Kultur arloan ere presente izan
dute egunkaria, bidelagun. Ho-
rregatik, dirua batzeko ekime-
nak ere antolatu izan dituzte.
Bertso saioak, esate baterako.
2010eko otsailaren 28an egin zu-

ten lehenengoa, Gernika-Lumo-
ko Jai Alai frontoian. Euskal He-
rriko txapelketa nagusira heldu-
tako sei finalista aritu ziren kan-
tuan: Aitor Mendiluze, Unai
Iturriaga, Aitor Sarriegi, Jon
Maia, Amets Arzallus eta Sustrai
Colina.

Hurrengo urtean egin zuten
HITZAREN aldeko bigarren bertso
saioa, 2011. urteko otsailaren
27an, Jai Alai frontoian hori ere.
Josu Goikoetxea gai-jartzaile la-
netan, Maialen Lujanbio, Igor
Elortza, Miren Amuriza, Amets

Arzallus, Andoni Egaña eta Ar-
kaitz Estiballes aritu ziren ber-
tsotan oholatza gainean.

Urte bietako saioetan herri-
arren babesa izan zuen HITZA
proiektuak, ehunka lagun joan
baitziren frontoira bertsolarien
lanagaz gozatzeko eta euskaraz-
ko egunkariarekiko babesa era-
kusteko.

Herria HITZAREN ondoan

Bertso saioez gain, Antoliñape
kultur elkarteak eta HITZAK, el-
karlanean, Hitza Eguna antolatu

zuten 2010ean. Ekainaren 13an
egin zuten jaialdia, Gautegiz Ar-
teagan. Dantzariak, bertsolariak,
herri bazkaria, umeentzako tai-
lerrak eta jolasak... Umore eta
giro onean eman zuten Bustur-
ialdeko hainbat herritarrek
egun hori, festa eta aldarrikape-
na uztartuz.

«Denon berbak batuz», es-
kualdean euskarazko proiektu
komunikatibo bat «ezinbeste-
koa» dela aldarrikatu zuten festa
egunera bertaratu zirenek.

Denon konpromisoagaz aurre-
ra aterako zenaren ustea zabaldu
zuten 2010eko jaialdi horretan,
baina urte hartako azaroan LEA-
ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZAGAZ
bat egin behar izan zuen Bustur-
ialdekoak, bizirauteko.

Proiektu biak batuta, beste 10
urte iraun du HITZAK, eskualde
bietako 33 herrien harpidedu-
nen, babesleen, irakurleen, eta
ondoan dituen elkarte, eragile,
talde eta udalen laguntzagaz.

Kanpaina desberdinak ere
bultzatu dituzte, batez ere, egun-
kariaren harpidedunak lortze-
koak. Hala, bi eskualdeotako
aurpegi ezagunak ere bildu izan
dituzte behin baino gehiagotan,
HITZAREN aldeko harpidetza kan-
painak eginez. Arrolape mendi
taldea, Gernika KESB edota Ger-
nika Rugby Taldeak etxean Hit-
za hartzearen aldeko mezua za-
baldu izan dute, besteak beste,
Pello Bilbao txirrindulari gerni-
karra, Txomin Arana moto gidari
ereñarra edota Josu Bergara
kantari eatarragatz batera.

www.opticaseguren.com

E
OPTIKA
EGUREN



OPTIKA
Aita Elorriaga, 20
94-615 66 36 • MUNGIA

ENTZUMEN ZENTROA ETA OPTIKA
Domingo Bernaola Plaza, 1
94-625 03 23 / 94-625 04 51
GERNIKA-LUMO



HIZER

ERAIKUNTZA • DISEINUA • DEKORAZIOA

STUDIO

Iparragirre 1 (tren geltokiko plaza)
GERNIKA-LUMO

info@hizerstudio.com

94 436 0236

655 749 538

IRUSKIETA

BITXITEGIA
JOYERIA

Marina Roldán Gallo, 219
48940 GERNIKA (Bizkaia)
Tel.: 94 436 41 75
germalk.joyeria@hotmail.com



HITZAREN aldeko desafioa, Kortezubiko frontoian. HITZA



HITZAREN harpidetzak sustatzeko kanpainan parte hartu zuten hainbatek; argazkian, Arrolape. HITZA



Hitza Eguna ospatu zuten Gautegiz Arteagan. HITZA



HITZAREN alde Jai Alai frontoian 2011. urtean egin zuten bertso saioa. HITZA

AMUTIO
Lurrindegia • Drogeria

- Oparitarako artikulak
- Mendi eta hondartzarako kapelak

Domingo Alegria Enparantza, 2
94 625 07 41
GERNIKA

 **AMURRIO**
BITXITEGIA

San Roke, 3 Tel.: 94 625 09 28 GERNIKA

Gestoria
COR
Aholkularitza

Iparragirre, 8
GERNIKA-LUMO
tf.: 94-625 06 33
faxes: 94-625 05 93
contacto@gestoriacor.com
www.gestoriacor.com

HITZA

2020ko azaroaren 13a

[lea-artibaietamutriku.hitza.eus](#) / [busturialdea.hitza.eus](#)

2006ko abenduaren 15eko azala.

2007ko abenduaren 15eko azala.

2009ko abenduaren 15eko azala.

2010eko abenduaren 15eko azala

2011ko abenduaren 15eko azala.

2015eko abenduaren 15eko azala

2016ko abenduaren 15eko azala.

2017ko abenduaren 15eko azala

BUSTURIALDEKO
IKASTETXE PUBLIKOAK
EUSKARAZ BLAI

HHI – Haur Hezkuntzako Ikastetxea
HLHI – Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea
BHI – Bigarren Hezkuntzako Ikastetxea

ALLENDE SALAZAR HLHI - Gernika-Lumo
 HAIZEDER HHI - Natxitua
 AROZENA BARRUETA BHI - Bermeo
 J.M. UZELAI HLHI - Busturia
 BARRUTIA HLHI - Arratzu
 MONTORRE HLHI - Gautegiz Arteaga
 BARRUTIALDE BHI - Arratzu
 MUNDACA HLHI - Mundaka
 GERNIKA BHI - Gernika-Lumo
 SAN FRANTZISKO HLHI - Bermeo
 URRETXINDORRA HLHI - Muxika